



**HAL**  
open science

## Mirande eta Thanatos : Heriotz heroikoa

Aurélie Arcocha-Scarcia

► **To cite this version:**

Aurélie Arcocha-Scarcia. Mirande eta Thanatos : Heriotz heroikoa. Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa, pp.17-36, 1997. artxibo-00000115

**HAL Id: artxibo-00000115**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000115v1>**

Submitted on 27 Apr 2006

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Aurelia ARKOTXA

MIRANDE ETA THANATOS: HERIOTZ HEROIKOA



18



*Jon Mirande druidaz jantzita.*

# MIRANDE ETA THANATOS: HERIOTZ HEROIKOA

A. Arkotxa - Scarcia

## 1. Mirande eta nazional-sozialismoaren inguruan ohar batzu

**M**irandez mintzatzean sendimendu kontrakorrak gutaz jabetzen dira: alde batetik urrikalmendua haren eskutitzen bitartez<sup>1</sup> eta urteak joan ahala asumitzen ez duen bakardade izigarri batean amiltzen baita:

*"Frantzian eta Parisen ezagutzen ditudan euskaldun askotarik nehor ez da nitaz arduratu. Honek mintzenago dit ene egoera. (...) Nere k... an utzi naute, eta hemendik aurrera nik ere hola eginen dut heiekin."* (Mirande/Urkizu 1995, 255)

Hunkitzen baikaitu ere amaz, aitaz nola mintzo den, eritzen direnean nola haietaz arduratzen den ikusteak, adiskidetasunean ere agertzen duen leialtasunak eta tolerantziak.

19

Bainan bertzaldetik oka eta oldarra *"Heil hitler"*, *"Juduak il !! Perish Juda !! Die Juden zum krematorium !"* idazten duelarik (Mirande/Urkizu 1995,31) edo *"Dena dela, Arraza Zuriaren aldeko guduari ez diogu uko egingo."* (ibid. 163), *"ikhusten duzun bezala (...) bethi ere aitzineko nazi tzarra, egon naiz."* (ibid. 131).

Zauzkada berdina, 1951ean Frantziako hizkuntza guttituen aldeko Deixonne legearen kontra altxatu zen Albert Dauzat-en atakatzeko aurkitzen duen argudio bakarra delarik *Le Figaro*-n idaztea SSeko dibisioneak pasatu izan balira *Arc de Triomphe* eroriaren aitzinean euskaldunak han izanzen zirela, lehen lerroan, esku-zartaka errezebitzeko...<sup>2</sup>

Hori Gernikako tragedia eta hamalau urte geroago...

Arras oroimen selektiboa duela erakusten du ere Peilleni egiten dion ihardespenean honetan:

*"Halaz ere, zure azken parrafoa gogorregi zait Hitler-en kontra. Ez zait iduri zuzen denik hari kontra baizik ez aritzea,*

1-Ikus *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, Patri Urkizuren edizioan, Susa 1995.

2-Ikus Dominique Peillen *"Jon Mirande, Penseur Basque"*, 14. or. in *Le Devenir Européen, spécial Euskadi, hommage à Jean Mirande*, avril 1974.

*eta horrengatik haren izena kendu dut, eta zure textoa generalago bihurtu dut.*" (Mirande/Urkizu 1995, 173)

Egia da batzutan ez dakiela nola bere paradoxetarik atera, ondoko etsenplu honetan gertatzen zaion bezala:

*"Mintzatzeko libertate geiago ba zegoen Hitler'en Alemanian gure errian bano; eta dena dela orduan beren errian debekatu- ta zeuden aleman idazleek erbestean idatz zezaketen (Mann, Freud, eta beste askok egin zuten bezala)." (Mirande/Urkizu 1995, 162)*

Ez da errex ulertzea nola egiten duen Mirandek den ekilibrista onenak ere erori gabe egin ez lezakeenaren egiteko, leporaino kontraesanetan itotzeko... Menturaz, preseski, berak, idazlea (eta ez politikoa) izanez, nazional sozialismoan lanjer bat bazegoela, oinarritzko lanjerra artistaren libertatearendako<sup>3</sup>, inkontzienteki sumatzen zuelako. Zeren mintzatzeko hainbesteko libertatea baldin bazegoen Hitler-en Alemanian, zertako erraten du Mirandek "debekatu" zirela Mann, Freud eta besteak ?

Preseski, André Rezler-ek justu alderantzizko iritzia dauka:

*"La prise de pouvoir par les nationaux-socialistes a une influence profonde et immédiate sur les lettres allemandes. Les écrivains se regroupent dans deux camps où les conditions de la création artistique sont fondamentalement différentes pour les uns comme pour les autres.*

3-Ikus 1933. ko maiatzaren 10ean nola Goebbels -en gerizapean Berlin-en eta Alemaniako hiri unibertsitario handienetan "indignoak" eta "aleman izpirituarendako arrotzak" diren liburuaren autodafea egiten den, gauaz suaren lan garbitzailea hobekiago ikusten baita... 20. 000 liburu, beti errito berdina segituz,erreak izan ziren gau hartan izugarria izan zen autodafean, hona hiru etsenplu:

"Bizi instintiboaren suntzitzearen kontra, gizarima noblearen alde Sigmund Freud-en eskolako idazkiak sura botatzen ditut."

"Herriaren kontra doan eta demokratiko-judaiko zeinukoa den kazetariaren kontra, eraikuntza nazionala kooperazio erresponsable batekin egiten delako, Theodor Wolf eta Georg Bernhard sura botatzen ditut."

"Gerla Handiko soldadoa saldu duelako, gazteak egiaren izpirituan hazteko, Erich Maria Remarque-n idazkiak sura botatzen ditut."

Ikus Adelin Guyot eta Patrick Restillini-ren *L'art nazi*, Leon Poliakov-en aitzin-solasarekin, Ed. Complexes, 1983, 52, 53 or.

Ikus ere Eduardo Gil Berak ezabatuak izan ziren aleman poeten bizi urratu eta abots ixilduak berpiztaraziz egin duen liburu ederra: *Ezabatuak. Idazle alemanak. Antologiak.* Pamiela 1995.

Cette scission en deux camps opposés – l'un en Allemagne, l'autre grandement dispersé avec plusieurs centres à Paris, à Prague, à Moscou, aux Etats-Unis – s'accomplit très rapidement. L'exode des écrivains d'origine juive et d'extrême gauche est massif; bientôt se joignent à eux de nombreux auteurs antifascistes. Les raisons du départ ne sont pas seulement politiques; le désir de ne pas se plier aux impératifs d'une politique littéraire rigoureuse des nouveaux maîtres de l'Allemagne y joue également un grand rôle. Les écrivains qui restent en Allemagne sont loin d'être tous nazis ou sympathisants.<sup>4</sup> (...)

Après le départ des exilés volontaires et involontaires, les portes se referment en Allemagne sur un provincialisme spirituel désespérant auquel donnent le ton les Hans Grimm, Friedrich Blunck et Erwin Guido Kolbenheyer, auteurs de mythes et de sagas promus à la prééminence, et les médiocrités nazies sont hissées de l'obscurité au sommet du Parnasse: les Hanns Johst et les Will Vesper. La littérature régionale, avec la littérature nazie proprement dite, devient littérature nationale. Tous les bons écrivains ne sont pas d'ailleurs partis. Gerhardt Hauptmann, auteur à réputation mondiale, prix nobel de la littérature, Hans Fallada, Ina Seidel, Ricarda Huch, etc., loin d'être nazis, continuent à écrire. Mais ils s'évadent dans l'histoire et les souvenirs d'enfance afin de se dérober à la mise au pas de la littérature et sauver leur dignité humaine, leur intégrité d'artiste.<sup>5</sup>

Idatzi izan da askotan Mirande herri minoritarioen alde zela baina hor ere selekzione bat egiten du Europako *enda zuriak* baitira interesatzen zaizkion bakarrak. Venezuelan dagoen bere adiskide Andima Ibinagabeitiari, idazten dio, adibidez, "*uste nuen Indiano basatiek egoserazi eta jan zindutela (...)*" (Mirande/Urkizu, 104).

Ameriketako Indianoek Latinoamerikan, Estatu Batuetan eta Kanadan jasaten dituzten egoerak ez zaizkio axola, ez Inuitenak, ez Afrikarrenak ez inongo populuenak zorigaitzez kolorezko larrua dutenak baldin badira. Pentsaera horren logika: zapaltzailea goi-mailako gizon zuriaren izatearen onartzea *zilegi* delako... Funtsean, Mirandek

4-André Rezler, *Le national-socialisme dans le roman allemand contemporain (1933-1958), Essai de contribution à l'étude de l'histoire contemporaine*, thèse de doctorat présentée à l'université de Genève, Imprimerie nationale, Lausanne 1966, 19. or.

5-André Rezler, op. cit. 22. or.

baditu gai horri buruz aski pasarte argiak denboran *Enbatan* argitaratuak eta aldizkariak berak P. Larzabal, J. Abeberry eta J. L. Davanten bitartez salatu zituztenak (Mirande/Larrea 1995,93):

*"Contentons-nous d'admettre que les Basques sont de même que les autres peuples européens, membres de la grande famille des races blanches: c'est là le premier le plus sûr indice de notre européenne fondamentale."*<sup>6</sup>

*"Cette constatation implique le racisme qui peut et doit être celui du nationalisme basque. (...) il y a (...) lieu d'empêcher tout croisement, avec des races qui n'appartiendraient pas au stock anthropologique du peuple basque, c'est à dire avec des races extra-européennes (il est évident que j'emploie ici le mot européen dans un sens anthropologique et non géographique: les descendants d'immigrants européens en Amérique du Nord ou du Sud qui seraient restés purs de tout métissage avec des autochtones sont des Européens tandis qu'il y a par contre en Europe même bien des métis non purement européens...). Ces métis extra-européens seraient funestes à un double point de vue. Tout d'abord, ils amèneraient tôt ou tard la destruction des Basques en tant que peuple (...) D'autre part, d'un point de vue non plus uniquement basque, mais paneuropéen, ils seraient néfastes en favorisant l'apparition sur notre continent d'individus de valeur inférieure aux Blancs purs... si du moins on admet une inégalité des grandes races humaines entre elles, selon une hiérarchie croissante des Noirs aux Jaunes et de ceux-ci aux Blancs. (...)*

*N'oublions pas, enfin que dans le cas particulier des Basques, il y a une autre possibilité de métissage: bien des Basques ont émigré et continuent de le faire, avec l'idée de rentrer un jour au pays. Mais au cours de leur séjour dans les "Amériques", ces émigrants vont se trouver en contact avec des mongoloïdes et des négroïdes."*

*"Bien sûr, un métis de Basque et d'Indien, par exemple, peut-être très sympathique et même avoir appris à parler basque aussi bien qu'Axular; il n'empêche que par le seul fait de son*

6- Jon Mirande "Race, peuple et nation (1)" 98. or. in *Miranderen lan kritikoak*, Jose Maria Larrearen edizioan, Pamiela 1985.

*sang mêlé, il ne peut être un Basque authentique et ne saurait être accepté, à ce titre, dans notre communauté ethnique si par hasard il en manifestait la prétention.*"<sup>7</sup>

Dudarik ez Mirandek euskaldun izateaz duen ikuspegia Hitler-en teoretarik heldu dela zuzen:

*"Dans l'absence d'un Etat basque qui pourrait prendre les mesures législatives destinées à protéger ce côté anthropologique de notre nationalité, il faut donc que chaque Basque conscient s'impose une auto-discipline qui lui fasse fuir tout mariage et d'une façon générale tout croisement (du moins susceptible d'être prolifique) avec des individus n'appartenant pas aux races véritablement basques. Cela peut-être parfois difficile, douloureux même; mais il faut bien nous persuader qu'en tant que membres d'un peuple, nos chromosomes ont plus d'importance que nos sentiments;"*<sup>8</sup>

Ezin sinetsizko "nos chromosomes ont plus d'importance que nos sentiments" horren korolarioak izanen dira bertze ideia arrazista batzu.<sup>9</sup> Ondokoetan ikusiko da minorita-teen defentsa "arraza zuria"-ren defentsaren markoan dela bakar-bakarrik kokatzen:

23

*"Ba zen orduan munduan zerki miresgarri bat, ONU deithua, Demokrazia eta Zuzentarzuna bazter guztietan zaintzen zitue-na. ONU horrek libertatea eman zerauen herri menpetuei orori. Lehenik Afrikako kultura-herri zahar ederrak galtzetik salbatu zituen horrela: Sanghak, Lundak, Okandak, Apingiak, Mandin-gak, Songoak, Kakongoak, Bakangoak, Musorongoak, Minun-goak, Edonongoak<sup>10</sup>, etc. Gero Asiakoak: Kazakhak, Turkmenak, Txetxenak, Uzbekak, Kirkhizak, Buriatak, Tadjiak, Samoyedak, Buruxoak, Buruxoroak, etc. Gero Amerikakoak, Eskimoak,*

7-Jon Mirande, "Race, peuple et nation (II)" in op. cit. 99 or.

8-Mirande/Larrea 1985, 101

9- Ikus Hitler-en idazkietan "meztizatze"az diona (frantses itzulpena, F. Dauture eta G.

Blond-ek egina, 1938an Fayard argiteletxeak *Ma Doctrine*-ez egin zuen ediziotik ateraria da):

*"Il est dans l'habitude de la nature de prendre soin et de corriger l'effet des mélanges qui altèrent la pureté des races humaines. Elle ne favorise pas les métis. Les premiers fruits de ces croisements sont durement frappés, parfois jusqu'à la troisième, quatrième et cinquième génération. Ce qui constituait la valeur de l'élément primitif leur est refusé; en outre, le manque d'unité de leur sang a pour conséquence le désaccord des volontés et des énergies vitales. (...)"* (A. Hitler, op. cit. 154).

10-Italikoan beltzez dena nik ezarria da.



*Irokesak, Araunkandarrak, Blackfootak, Aztekak, Toltekek, Gu-  
geanoak, Quitxuak, Khakatsuak, etc. Azkenean, larru beltz, hori  
eta gorri guztiak libratu ondoan, Europako herri merezidunekin  
hasi zen: Lapoinak, Makedonak, Sorabitarrak, Jerseytarrak,  
Guerneseytarrak, Korubiarrak, etc. Eta azken azken azkenean,  
Euskaldunak ere bai.*" (Mirande/ Larrea, 1985: 121)

Eta ere:

*"Moi je suis un Européen: un Catalan, un Breton, un Frison  
peuvent être mes frères, mais jamais un nègre ou un Peau  
Rouge."*<sup>11</sup>

Miranderi arrazakeria nazional-sozialismoaren ideologiatik eta honen iturrietarik heldu zaiola *Gernika* aldizkariko buruzagiari 1949an (gogora dezagun bakarrik lau urte duela bigarren gerla mundiala bukatua dela...) idatzi zion bigarren zati honek esplizitoki agertuko du, (baina bertze frangotan adierazpen berdintsuak eginak izan ditu):

*"(...) je dois dire que mon anti-franquisme n'est pas de  
l'anti-fascisme (entre parenthèses, je ne suis d'ailleurs pas  
fasciste, mais national-socialiste, il est bien évident que  
vous mettez tout cela dans le même panier)"*<sup>12</sup>

Mirandek aitortzen du ere zenbat zor dion Nietzscheri ("*l'appel angoissé de Nietzsche s'adresse aussi à nous: soyons de bons Européens!*")<sup>13</sup>. Jakina da Nietzscheren ikus-  
tate dionisiakoak nazional-sozialismoan ukan zuen eragina haren "gizagoi"<sup>14</sup> eta  
borondatearen indarraren interpretazio abusiboaren gatik izan zela Pierre Milza-k  
dioen bezala:

*"L'exaltation du corps vigoureux et sain ("Il y a plus de sages-  
se dans ton corps que dans la plus orgueilleuse raison"), "la  
fidélité à la terre", le culte de la vie dangereuse ("L'homme est  
une corde tendue entre la Bête et le Surhumain. Dangereuse  
est la traversée, dangereux chaque pas en avant"), l'héroïs-  
me qui dépasse infiniment l'individualité éphémère et s'affir-  
me dans la destruction ou dans le sacrifice de soi: tels sont*

11-Jon Mirande, ikus Jose Maria Larreaen edizioa 14. or. (eskuizkribu osoaren fotokopia baizik ez da agertzen).

12-Jon Mirande in op. cit. 14. or.

13-Jon Mirande, "Culture et Folk-lore" in *Le devenir Européen*, avril 1974, 20. or.

14-Jon Mirandek Nietzscheren *Übermensch*, *gizagoia* (Mirande/Urkizu 1995, 38. or.) itzultzen du eta ez *supergizona*. Egia erran Miranderen itzulpena ezin hobea dirudit

les thèmes dont s'inspireront nombre de théoriciens du nationalisme et du fascisme. Et avec eux l'idée d'un monde à changer et à marquer pour des siècles: "Que votre suprême félicité, dit Zarathoustra, soit d'imprimer la marque de votre main sur les siècles à venir, comme sur une éponge molle. Il faut graver votre volonté sur des millénaires comme sur un métal plus résistant que l'airain." <sup>15</sup>

Berriz azpimarra dezagun naziak Nietzsche-ren obraz eta Zarathoustra-z bereziki jabetu zirela Goethe edo Hölderlin-ez, adibidez, jabetu ziren bezala eskrupulorik gabe. Komeni da ere ez ahanzte a nazien aldekoa zen Nietzsche-ren arreba eta nazi- propagandagileak nola ibiliko diren obraren desformatzen beren propagandarentzat: Arthur Goldschmidt-ek gogoarazten digun bezala:

"Des "écrivains" nazis tels que Ernst Bertram, Hermann Cysarz ou Alfred Bäumler, aidés en cela par la propre soeur de Nietzsche, défigureront sciemment toute la pensée de Nietzsche arbitrairement simplifiée et expurgée. Ils isoleront et citeront sans cesse certains passages, tels le chapitre **De la guerre et des guerriers (...)**, soigneusement détachés de leur contexte et privés de leur signification symbolique. (...)

Il faudra attendre 1976 et l'édition Colli-Montinari pour voir que **La Volonté de puissance ou l'Innocence du devenir** n'ont été que des projets de titre, parmi d'autres. Il faut se garder de confondre le moindre passage de Nietzsche avec les élucubrations des Houston Stewart Chamberlain et autres Alfred Rosenberg de même acabit. (...)" <sup>16</sup>

Nietzsche bera nazional-sozialismoaren itzal beltzetik nolabait bereizteko ere kritikari berak gogoarazten du hitlerismoaren etsaiak ziren Hermann Hesse eta Thomas Mann idazle alemanen obretan zenbatetarainoko inportantzia zuen Nietzsche-ren pentsamenduak.

Eduardo Gil Berak, hari beretik, dio:

"1933ko maiatzean, naziek erre egin zuten "arte dekadentea" bezala ofizialki kontsideratzen zen liburu meta handi bat publikoaren aurrean.

15-Pierre Milza, *Les Fascismes*. Notre siècle. Imprimerie nationale 1985, 14/15 or.

16-Georges-Arthur Goldschmidt, "Commentaires" 482/483 in Nietzsche, *Ainsi parlait Zarathoustra*, Librairie générale française, 1983. .

*Liburuen erreketak izan da, eta behar bada izango da, maiz errepikatuko gertakaria, klasikoa nonbait; gotorlekuen eraikuntzarekin batera, beti izan da tarea común de los principes Borgesen arabera; (...) Baina Alemaniaren kasuari gagozkiolarik, hura espeziala izan zen; Beste frontera ez bezala, liburuekiko harremanetan Hitlerrek lortu zuen nahi zuena, horretan dena atera zitzaion bere asmoen arabera. Hitlerrek kanonizatu egin zuen Nietzsche -sekula irakurri ez zuena- Weimaren dedikatu zitzaion tenplo irrigarri haren bidez; Zeremonia horrek bereziki lagundu zuen Nietzscheri atxikitzen orain arte dirauen lcloa.”<sup>17</sup>*

Nietzscherk eta bertze pentsalari alemanek Miranderen baitan ukan duten oihartzunaz Joxe Azurmendik badu lan interesante eta sakonik <sup>18</sup> eginik, eta agerrarazi izan du ere korronte filosofiko horrek bereziki (bainan ez bakarrik) Miranderen obran izan duen inportantzia.

Nazional sozialismoan goraiatu izan zen azkarki gerlaria, gerlariaren zalduntasuna eta bereziki honen heriotz heroikoa. Ondoko lerroetan bi poemen bitartez, *Eresi* eta *Gudu Abestia*, ikusiko dugu Miranderengan ere tematika horrek utzi duela aztarna.

26

Nahiz erromantiko garaietara itzuliz naziek han aurkitu izan duten beren delirioen hasetzeko bazka ausarki, erran behar da, Erromantizismoak eta bereziki sinbolismoak hainbertzeko eragina izan baldin badute Miranderen poesian izan dela, *jadantik bere baitan* zituelako aingeru eroriak, Baudelaire-ren gorputz ustelen usaina eta Poe-ren belea... Ez nazien gatik. Mirande idazlea ez da beti Mirande pentsalariarekin akortean. Eta egia da Mirande poetaren bidaia batzutan, zorionez, arras nazien diktatu asto eta *ikara* garrietarik urrun dabilala, Baudelaire eta Poe-gandik Kafka <sup>19</sup>, eta Prevert-engana<sup>20</sup>, adibidez, helduz.

## 2/ Heriotz heroikoa

Nazional sozialismoak goraiatzen duen soldadoaren heriotz heroikoaren tematika *Eresi* eta *Gudu Abestia*-n agertzen dira inon baino hobekiago.

17-Eduardo Gil Bera, *Ezabatuak...* 7/8 or.

18-Ikus Joxe Azurmendiren *Mirande eta kristautasuna*, GAK, Donostia, 1978 eta *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler Miranderen pentsamenduan*, Susa, 1989.

19-*Txekar-Austriar bat zan, doitzerez idatzi zuena. Hain maite dituzun judu heietarik zela beldur naiz.* (Andima Ibinagabeitiari-1953-). *Mirande/Urkizu* 1995, 84. or.

20-Jacques Prévert-en kantu bat euskaraz jarri zuen. Ikus *Mirande/Urkizu* 1995, 45 or.

## Eresi

Hamalauduna horrela presentatzen zaigu: 10 A/10B/10A/10B // 10C/10D/10C/10D // 10E/10E/10F // 10G/10G/10F.<sup>21</sup>

Lehendabiziko poemaren tituluak berak denboratik kanpo eta beraz "gesta"-rendako egokia den kondaketa batean kokatzen gaitu <sup>22</sup>. Bertikalitate eta birilitea hastape-netik azpimarratzen direlarik:

*Aineza gal bizia goiz batez,  
Iskiludun, ixil eta zutik  
Gudian, lur zahar hunen maitez,  
Mendietan etsaien eskutik.*

*Ainendi hil gazterikan, nihaur,  
Ikurrinik et'ikurrik gabe,  
Ezpainetan othoitzik ez, burhau  
Itzalik ez, baikor, ez herabe.*

ikustekoa da zer inportantzia handia duten, G. Durand-en banaketari<sup>23</sup> jarraikiz, eguneko eremuko hitzek: *goiz, gazterikan, burhau, Itzalik ez, baikor, ez herabe* eta nola hauen ingururuan agertzen zaigun birilitearen alor semantikoa, erran nahi da bertikalitatea, agresibitatea, arma eta gerlaren aipamena: *iskiludun, gudian, zutik*.

27

Badakigu Mirandek gustuago darabilala *gudu* sustantiboa frantzikotik datorren *gerla /gerra* baino. Zeren, haren ustez, *gudu* germaniarrengandik heldu baitzaigu, eta beraz organizatzeko ahala, eta beraz zibilizazioa... Ez dezakegu ikuspegi hori nazional-sozialismotik bereiz eta bereziki hain suharki Hitler-ek eta SSeK laudatu zuten gerlariaren itxuratik. Pundu hori ez bada kontutan hartzen ez dezakegu behar den bezala uler testu honetan dagoen azpiko gaia. Hona gai horri buruz Mirandek 1951eko artikulua batean ekarri argitasun batzu:

21-Sonetoaren eraikuntza tradizionala (ikus errenazimendukoaren presentazioa) errespetatuz ez genituzke: bi lauko +bi hiruko, presentatzeko formak pentsarazten ahal digun bezala baizik eta: bi lauko +seiko bat distiko monorrimiko batez (10E/10E) eta errima besarkatudun lauکی batez (10F/10G/10G/10F).

Kasu honetan, dirudienez, Mirandek Ronsard-ek *Épitaphe de Marie*-n erabili zuen italiar sonetoaren forma darabil.

22-Oihenarten arabera, eresi = "*récit, vieille chanson qui contient quelque histoire ou narration.*"

23-Ikus ia klasikoa den Gilbert Durand-en *Structures anthropologiques de l'imaginaire*-n (Bordas, Paris 1969) agertzen den bi eremu handien banaketa ("eguneko eremu"- eta "gaueko eremu") hemen eta beste Miranderen poema frangotan tematikak modu horretan bereiz ditzakegu.

"Gure arbaso zaharrei buruz zehatzapen guti dakigu; Historian agertzen orduko, berriz -Imperi Behereko garaian, alegia-gudulari eta guduzale borthitz bezala pintatzen dituzte idazki eta elhezaharrek: hatsapenean lurr ebasle inorganizatuak; ondoren herrialde-eta resuma-erakitzaile, Waskoniko duke-herria (VI gn. mendean) eta Nafarroako rege-herria (IX gn. mendean) irazan zituztenak. Hemen, faktu baten interesant da iakitea: orduko euskaldunok zeduzkaten aitzindari eta guduburuzagiak german endako zirela dirudi, beren endakide, Hegoi-aldeko Got eta ipharraldeko frankei aitzia iazarriak. Ezin ukhatuzko german eragin bat euskal gerla-hiztegian, beharr bada goten ganikakoa: gudu = "katus" germanek mailegatu keltarr-hitzetik; iskillu=got. skildu; murga edo morga = got. bourgs; sala (iauregi) = frank. sal; e. a. (...) Ordurarte basati eta anarheian bizi izandako euskaldunek beren endaren gudu eta herri-organizazionerako ahalkeizunen agerraratu zituen legamia ukhan zuketen german elemendu hori. Zorioneko ondorioa ekharri zuen guretzat bi enden elkharr-eragiteak: Euskalherriaren irazaile den Nafarr Statua.

Euskaldun germandu zalduntza gudulari hori izan ez balitz, Euskalheritik ere izanen ez zela ahantzi beharr ez dugu: gizeli bihurri anarkhistetan banaturik egonen ziran euskaldunak, goiz ala berant hauzoherri hobeki organizaturen batek bereganatu eta assimilatu zituenak. (...)

Bada, Euskalherriaren oraiko egokera kritikoa kontuan hartuz, berriz ere horrelako gudu-zalduntza baten beharrunean gagozela nabari da." (Mirande/Larrea 1985, 21/22)

Anarkiaren kontra baldin bada nola ezar dezake "Ikurrinik et'ikurrik gabe"? Dirudienez hemen ikusi behar dena da Nietzsche-ren *borondate absolutuaren* ilustrazioa, *ni* -aren libertate halaber absolutuaren jalgitzea: gerlariak, estoikoez bezala, berak hauta baitezake hiltzeko modu eta momentua, "Ainendi hil gazterikan, *nihaur*". Ikuspundu horretan gerlariaren hiltzeko modu nobleena armak eskuan hiltzea delarik, heriotz heroikoa, zaldunek desiratzen dutena.

Ni-aren indar hori ongi azpimarratzen dute othoitzaren ukatze (= gizagoi Nietzschearrak ez du Jainkorik behar aski azkarra baita bera, ez baita "esklaboen arrazakoa") eta burhauaren goraiapatzeak (= ez dago gehiago blasfemiaren beldurrik Jainkorik ez baitago): "ezpainetan othoitzik ez, burhau/ltzalik ez."



*Jon Mirande , J. M. Le Pen, G. Pennaod, eta J. Markal-ekin. 1970.*

Bigarren zatian heriotz heroikoaren apoteosia dugu:

*Ainitza gal hats, arima odol  
Hiretako, ene jainko-aidol  
Zaharra, Lur! mendi-gudu baten,  
  
Iguzkiek inguruz inguru  
Nire soin haur, berriz sor haiduru  
Hiretan lo, garrez jo lezaten.*

Gorago ikusi birilitatearen inguruko itxura edo irudiek jarraitzen dute, *mendi-gudu, iguzkiek, garrez*), heroiaren sakrifizioaren ideiarekin (*odol*) eta lurraren eme itxuraren altxatzearekin (*ene jainko-aidol/Lur, berriz sor haiduru, Hiretan lo*).

Jainko monoteistaren ezabatzearekin jainko-aidol paganua agertzen da, jainko hau Lurra delarik = aberria, erran nahi da heriotz heroikoarekin bat egiten duen itxura.

Lurra ama bilakatzen da gorputzak, preseski, bertikalitatea galtzen baitu umeuntzian gorderik dagoen hauraren itxura hartuz. Heroiaren hilikia haur bihurtzen da lurraren sabelean baina denbora berean haren maitale, alokutiboaren erabiltzeak (*hiretan lo*) erakusten duen bezala; ber denboran, eguzkiaren irudiak heroiaren izate maskulinoa hartzen du haren gar falikoek lurtean dagoen gorputza jotzen dutela.

Zutasunarekin hasi zen poema borobilarekin bururatzen da, eguzkiaren ziklo eterna- laren irudiarekin Niezscheren Zarathoustran *betiereko itzultzea* den gai nagusiaren sartzearekin. Heroia, arra eta eguneko eremukoa denez, eguzkiaren metaforak baitu lurra- renak baino aise hobekiago definitzen.

Azpimarratu behar da heriotz heroikoa beti indarrari lotua dela eta ez daitekeela izan tristea, euforikoa eta handikoa baizik, horregatik poemaren ondarrean argia emen- datzen da (*Iguzkiek*), poesiak Wagnerren<sup>24</sup> opera baten azentu musikalak hartzen dituela.

24-Richard Wagnerren mireslea zen Jon Mirande: "Nik ere maite ditut aipatzen zinauzkidan ereslariak bai eta Wagner ere. *Tannhäuser, Parsifal* osoki atsegingarri zaizkit."

(Mirande/Urkizu 1995, 24)

*Tannhäuser* XIII. mendeko aleman poetaren inguruan eraiki zen leiendaz baliatzen da Wagner: seigarren gurutzada egin eta gero Tannhäuser-ek bizi likitsa eraman ondoren, zazpi urtez joan zen Venus-ekin bizitzera Turingia-ko leize batera. Azkenean, egin zituen bekatuetaz dolu zelako barkamenduaren eskatzera joan zen Aita Sainduarengana. Leiendak dio Aita Sainduak erran ziola bere makila nola ez zen loratzen ez ziola Jainkoaren barkamendua ematen ahal. Handik hiru egunetara makila loratu zen bainan berantegi; Tannhäuser etxera itzulia zen eta Aita Sainduak ez zuen aurkitzen ahal izan non zen. Azkenean, heroiak ez du erreusitzen bere eginbeharra sobera izpiritu girixtinoa duelakotz. *Parsifal*-en, berriz, germaniar mitoak utzi eta keltiarrak hartzen ditu Wagner-ek bere azken opera izanen den obran. Parzifal Graala ren lortzeko duin den heroi garbiaren inguruan eraikia da obra. Hiru alderdi suma ditzakegu: salbamendu girixtinoaren gaia, Schopenhauer- en urrikaltasuna eta budisten ukoa.

Richard Wagner-ek sekulako eragina ukanen du nazional-sozialismoan eta bereziki Hitler- en baitan. Pierre Milzak ematen duen esplikazionea hauxe da:

*"Avec Wagner, qui meurt en 1883 mais dont l'influence est considérable à la fin du XIXe siècle et au début du XXe, (la musique) se veut à la fois art intégral (musique, poésie, décor) et réponse au désenchantement de l'homme, à une vision pessimiste du monde que l'auteur de la tétralogie a héritée de Schopenhauer. Cette réponse, Wagner la recherche, comme Nietzsche qui fut un moment son disciple et son ami, dans le chant obscur de l'instinct et de la passion, dans le goût violent de la douleur, du sang et de la mort et dans le retour volontaire au néant. En mêlant ainsi l'exaltation des forces instinctives et le culte du passé allemand (légendes germaniques et aussi vision idéalisée de l'Allemagne médiévale), Wagner traduit en langage musical les aspirations d'une génération qui cherche à la fois à justifier ses ambitions et à se dépasser elle-même à travers le mythe grandiose de la Nation et de la Race. Son influence sur les pangermanistes, et après la guerre sur le national-socialisme, sera immense. Mais indépendamment même de sa dimension "germanique", la musique wagnérienne trouve jusqu'à nos jours des admirateurs fanatiques parmi les pratiquants des cultes nationaliste d'inspiration fascisante. Le fait que dans un passé très récent les meetings de certains mouvements néo-fascistes européens aient été baignés d'accents wagnériens témoigne moins de la nostalgie pure et simple des parades de Nuremberg que de la permanence du phénomène et de l'attachement tenace à une façon d'exprimer, non pas anarchiquement, mais dans le cadre d'une tradition "romantique" résolument tournée vers le passé, l'explosion des pulsions instinctives et irrationnelles." (Les fascismes, Aip. lib. 18. or.)*

## - Gudu Abestia

Nahiz Miranderen poemetak izan den azken edizioan (EHU 1992) *Gudu Abestia* dena bat, bertsozik ez balitz bezala, agertzen den, ikus daiteke hiru badirela, hauen egitura hamar oinekora delarik iduriz <sup>25</sup>, hiru neurtitzetan kopuru hori ez baita betetzen. Halere, dirudienez, Mirandek pentsatu egitura hauxe liteke, errima kurutzatuekin: 10A/10B/10A/10B // 10C/10D/10C/10D // 10E/10F/10E/10F.

Mirandek hamar silabako neurtitzak (eta ez hamaikakoak) hartu dituzke, erritmu hori lirikan, gesta-kantu eta poesia hagiografikoetan Ertaroan asko erabilia izan zelako. Ez dezagun ahantz Ernazimenduan Ronsard-endako hamar silabako neurtitza "*le vers commun*" edo neurtitz arrunta baldin bada, Du Bellay-rentzat oraindik "*le vers héroïque*" dela.

Ainztetan gertatzen den bezala Miraderekin tituluak poemaren gaia sintetizatzen du arras tradizionala den eran. "Gudu"-("Got" hobekiago entzuten da...) kantu honek bixtan dena, *Eusko gudariak* gogoarazten digu (gainera bizkaieraz idazten baitu parodiatuz) bainan Miranderen kantuak berezitasun batzuk baditu:

- gudarien ordena, diziplina eta hierarkiaren azpimarratzea (*Gudariak lerrokatu dira, goazen oro, Nausien aginduen haiduru, danok*),
- ikurriñaren inportantzia eta berezitasuna (*ikurriñak goitituz, Lau -buru dala gure goiburu, ikur deunaren*<sup>26</sup> atzetik, gurutz beltzezko ikurrinak),
- eta mundu berri baten eraikuntza (*Laster gurutz beltzezko ikurriñak/ eraikiko ditugu orotan*).

31

### 1. Ordena, diziplina, hierarkia

Ezagutzen ditugun mota horretako kantu guztietan bezala heriotz heroikoa goraipatzen da (*Gogoratuz anai illen eginak*), etsaiaren herra agertzen da (*Etsai odolgorri*

25-Metrikaren aldetik poesia epikoari ongi heldu zaion hamar oinako neurtitzetan egina da baina lazakeria pixka bat nabari lehen (*ixkiludun, ikurrinak goitituz*), hirugarren (*Etsai odolgorri danak garbituz*) eta ondarr aitzinekoan (*Laster gurutz beltzezko ikurrinak*), hauek hiruetan hamaika oin besterik ez baititeke aurki.

26-deun: Arana Goiriaren neologismoa (1895). Hona (*done* edo *don, domine*-tik heldu dela ez duelako onartzen), asmatzen duen fantesiazko etimologia: "*La forma paralela del actual adjetivo don o done (san, santo) es evidentemente deun. Lo deduzco del vocablo bizcaíno deunge, que también aunque menos frecuentemente, se dice donde, y significa "malo"; su etimología es claramente deun-ge, que viene a ser tanto como "in-santo, in-bueno". (...) Empleo la forma deun con preferencia a la don, porque con ésta, el vocablo pudiera parecer el mismo don español, que no tiene relación con él.*" (*Orotariko hiztegia*) *Gudu abestia*-ren itzulpen espainolean (ikus EHUko edizioa) *deun* ez dago itzulia: *Vamos todos detrás de este emblema.*



danak garbituz) baina ez da dudarik Mirandek idatzi duen bertasioak baduela zer ikus-tekorik nazien gai predilektuekin.

Ordena, hierarkia, diziplina Mirandek aristokrazia duen ideari junta daitezke:

*"Euskaldunak zinezko demokrotak behin ere izan direnik uste ez dudala aithorr dut (...) Iurginzalduntza bat zire(n), alegia."*<sup>27</sup>

Gizartearen ikuspegi piramideala nazional-sozialismo eta, oro har, faxismoetan ezin hobeki aplikatu izan da ideologia horien egitura piramidean finkatzen baitzen preseski, buruzagi baten botere absolutuaren pearen menpe. Halere, neurri batean ez dira nahasi behar nazional sozialismoa eta faxismoa, nahiz beste neurri batean bi mugimendu totalitario hauk faxismoetan koka daitezkeen P. Milzaren liburuaren tituluak agertzen duen bezala: *les fascismes*.<sup>28</sup>

*Gudu Abestian* egitura piramidala argi agertzen da, funtsean militar formazio guzietan bezala, goitian nausiak, azpian soldadoak. Egiten duten parada erritualak denek

27-Mirande / Larrea 1985, 20.

28-Nazismo eta faxismoaren definitzeko Alfred Grosser-en oinarritzko puntualizazio hau: *"Qu'est-ce qui fait la spécificité du nazisme ? On le classe habituellement dans la catégorie des fascismes, ce qui revient simplement à dire qu'on le compare au fascisme italien. Les ressemblances sautent aux yeux: le nationalisme de frustration, le chef tribun, l'organisation corporative de la société, la jeunesse en uniforme, l'appui de la petite bourgeoisie dépossédée, le langage révolutionnaire allant de pair avec le maintien des hiérarchie sociales. Mais les différences sont éclatantes: le peuple, la race face au culte de l'Etat héritier du droit romain, la guerre comme moyen prévu et accepté, alors que l'Italie s'intègre dans la société internationale jusqu'à l'invasion de l'Ethiopie qui, si elle était caractéristique du fascisme, ferait du fascisme l'héritier direct de la IIIe République française avec ses conquêtes coloniales.*

*Le racisme était une donnée centrale du nazisme. Il ne l'était pas du fascisme italien, du moins pas sous sa forme antisémite ou antislovène: il était présent dans le mépris pour les Ethiopiens qu'on pouvait massacrer à loisir. Mais ce racisme-là est-il particulier au fascisme ? (...) Et le rapport Khrouchtchov viendra, en 1956, révéler aux uns et aux autres que le massacre des populations entières, que l'arbitraire policier, que les camps de la faim et de l'humiliation organisée, que les lubies sanglants d'un despote étaient parfaitement possibles avec un idéal de fraternité et de libération universelles.*

*Alors quelle est sa spécificité ? Elle est de même multiple et justifie le sentiment particulier d'horreur que le nazisme a fait naître. Tout dictateur acclamé n'est pas Hitler, à la fois parce que peu de chefs ont présenté autant de traits d'un fantastique déséquilibre mental et parce que peu d'acclamations populaires ont, à partir du délire acclamé, témoigné d'une telle ferveur pour l'irrationnel agressif et pour l'auto-exaltation méprisante.*

*L'enthousiasme, notamment chez les jeunes, n'était pas sans noblesse. Mais, au niveau de millions de fidèles en uniforme brun ou noir, le nazisme a bien été conforme à la formule que le jeune député social-démocrate Kurt Schumacher lançait au Reichstag en 1932, ce qui lui vaudra douze ans de martyre: "un appel au salaud qui dort dans l'homme." (Ein Appell an den inneren Schweinehund im Menschen).*

Ikus Alfred Grosser, "Signification d'un désastre" in *Dix Leçons sur le nazisme*. Les grandes études contemporaines. Fayard, 1976.

denbora berean eta mugimendu berdinarekin egiten dute gorputz bat balitz bakarrik mugitzen. Mugimenduak inportanteak dira espazioa geometrikoki okupatzen baitute, dinamika eta tentsio azkar bat sortuz: ikurriñen goititzea, gudarien lerrokatzea, eta etsaiei buruz ikur "deuna"-ren gibeletik "*indarrez aurrera*" denak joatea.

Ordenua absolutua da, hutsik gabekoa, obediencia den bezala: "*Nausien aginduen haiduru*".

Bestalde, irakurleak parte hartzen du, hastapeneko urruneko ikustetik aktore bilakatu: *Goazen, gaude, gure, gaitezen sar, eraikiko ditugu*.

Gerla eta armada guzien mitologia dugu hor bainan inon ez da III. Reich-ean bezenbat eszena-joko eta sinboloen efektuei kasu egin; egia erran ikurriñen goititzeak, bereziki ditu gogoarazten naziek Nuremberg-eko Luitpold plazan mugimendu batez jalgitzen zituztenak.

## 2. Gurutz beltzeko ikurriñak

*Gudu-abestian* ikurriña eta ikurren aipamenak lau aldiz bederen egiten dira. Hastapenetik, hemen *Eresin* bezala, bertikalitateari (*goitituz*) eta beraz agresibitate eta armei (*ixkiludun*) lotua da, pluraltasunak sekulako zabaltzea ematen diolarik eszenari (ikus goitiago). Bainan azpimarragarria dena da *hemengo ikurriñak ez duela deus ikustekorik Sabinok asmatuarekin!* Ikurrin hau ez da usaian guk ikusten duguna, gorria, gurutze xuri eta gurutze berdez egina.

Dudarik ez lauburua dela: "*Lau-Buru dala gure goiburua*", "*Laster gurutz beltzeko ikurriñak*".

Ene ustez hautua ez da inozentea eta lauburua ere ez da gure egunerokoa, *beltza* ("*gurutze beltza*"...) baita eta ikurriñan pintatua edo josia. Sobera gogoarazten du gurutze gamatua are gehiago gorago aipatu zen Miranderen gutun baten fotokopian, sinaduraren ondoan ikusten direlarik eskuz-esku marrazkituak lauburua eta gurutze gamatua...<sup>29</sup>

## 3. Mundu berri baten eraikuntza

Azken neurtitzetan goraiatzan dira lehengo soldadoen ekintza eta heriotz heroikoak ("*anai illen eginak*") geroari buruzko idekitzea sartuz: "*Laster (...) eraikiko ditugu orotan*".

Hemen ere lehenago egin oharra berriz egin genezake, soldadoen heriotz heroikoan ez zaigula tristeziarik sartuko: ohorezko ekintza da indibidua baino gorago den xede batendako egiten dena, kantu marzial guzietan gertatzen den bezala. Halere argi da ere hemen gurutze beltzeko ikurrinen hedatze hori "ordenu berri"-aren hedatzea dela eta ordenu berri hori nazional sozialismoan finkatua dela... "*Anaitasun Beltzeko mutilla*"<sup>30</sup> -k egin zituen hautuen berri nolabait ematen digutenak.

Lan honen lehendabiziko orrietan aipatukoak gogoratzea baizik ez.

Lan honen helburua? Agertzea Miranderen poesia hunkitu eta trebesatu duten korronteetan badirela haren idazkeraren alderdi batzuen ulertzeko inportanteak direnak. Nazional sozialismoa heietarik bat izan da eta hemen aipatu diren bi olerkiak ez daitezke uler neurri hori bazterrean uzten baldin badugu. Jakinez, preseski, nazional sozialismoak burdin-hari zorrotzez inguratu zuela estetika erranez zer zen zilegi eta zer ez, zer eder eta zer "degeneratu"...

Nere buruari galdegiten diot ardura nolakoa izanen zen Mirande zinez Hitler-en Alemanian bizi izan balitz? Ez zait iduritzen burdin-hari sistadunez estekatu edergintza eta poesian bidaiatzea haren gustuko izanen zela.

30-Mirande/Urkizu, 190. Mirandek bere buruarendako errana: "(...) ni bezalako *Anaitasun Beltzeko mutillentzat*." (Mirande/Urkizu 1995,190)

## Mirande et Thanatos: la mort héroïque

L'influence du national socialisme dans la thématique de la mort héroïque chez J. Mirande, tel est l'axe sur lequel gravite l'article de A. Arkotxa Scarcia.

Dans un premier temps, l'auteur insiste, à l'aide de citations, on ne peut plus explicites, sur certaines affirmations antisémites et racistes de J. Mirande qui ne cacha jamais ses sympathies nazies. Néanmoins, lorsqu'il s'agit de défendre l'indéfendable: "*Il y avait plus de liberté d'expression dans l'Allemagne de Hitler que chez nous; et de toutes les manières les Allemands qui étaient interdits dans leur pays pouvaient écrire en exil (comme le firent Mann, Freud et beaucoup d'autres).*" nous pouvons remarquer l'émergence d'une contradiction inévitable entre le Mirande défenseur du nazisme et le Mirande écrivain attaché, lui, à la liberté et qui reconnaît, de facto, que Freud et Mann durent précisément fuir pour pouvoir continuer à écrire...

De même, l'auteur de l'article ajoute que le Mirande défenseur des minorités, basques et autres, ne peut se comprendre qu'à l'intérieur de limites discriminatoires strictes directement rattachées au national socialisme: minorités blanches d'Europe et plutôt d'une Europe du nord que du sud. Ainsi, lorsque Mirande affirme: "*Contentons-nous d'admettre que les Basques sont de même que les autres peuples européens, membres de la grande famille des races blanches: c'est là le plus sûr indice de notre européenne fondamentale.*", il est clair que, par exemple, les autochtones d'Amérique sont exclus d'office d'une telle conception fondamentalement raciste et non humaniste.

L'influence de Nietzsche est évoquée surtout pour préciser que la pensée du philosophe

allemand fut défigurée et utilisée par Hitler qui, selon les mots d'E. Gil Bera "*(le) canonisa (...) -sans l'avoir jamais lu- par l'intermédiaire d'un temple ridicule à Weimar.*" Il nous est aussi rappelé l'importance de Nietzsche chez des auteurs antinazis comme H. Hesse et T. Mann.

Dans un second temps, apparaît l'une des thématiques récupérées et développées par le national socialisme: la mort héroïque, et son incidence sur deux poèmes de Mirande: *Eresi* (Élégie) et *Gudu abestia* (Chant guerrier). On notera la récurrence d'images viriles appartenant au régime diurne (cf. Durand): guerriers, armes, corps dressés, drapeaux levés, etc., ainsi que l'apparition, dans l'un des deux textes, du thème de l'éternel retour où l'on reconnaîtra, une fois de plus, l'empreinte laissée par le *Zarathoustra* de Nietzsche.

Il est bien entendu impossible de comprendre certains caractères esthétiques de l'oeuvre de Mirande si l'on ne tient pas compte du national socialisme qui utilisa, en les déformant et en s'en servant comme matériel de propagande, des courants hérités du romantisme. Il n'en est pas moins vrai que Mirande est un poète authentique habité, comme ses maîtres Baudelaire et Poe, par la mort et le sentiment du néant. Un homme traversé par des élans contradictoires dont l'ironie provocante et l'anticonformisme n'auraient jamais été admis par ceux-là même qu'il défend avec tant d'ardeur et qui brûlèrent plus de 20.000 livres "indignes" en 1933 à Berlin et organisèrent à Munich en 1937 une exposition des oeuvres "dégénérées" (*Entartete Kunst*) d'artistes tels que Chagall, Kandinsky, Klee, Kokoschka...

## Mirande y Thanatos: la muerte heroica

En este artículo A. Arkotxa-Scarcia pone de manifiesto la influencia que tuvo, junto con otras corrientes, el nacional-socialismo en la concepción estética de Jon Mirande.

En primer lugar, la autora hace hincapié, valiéndose de citas que dejan poco margen a la duda, en algunas afirmaciones antisemitas y racistas de Jon Mirande, en las que insistió varias veces a través de artículos y cartas. Sin embargo, cuando Mirande quiere defender lo indefendible: "*Había más libertad de expresión en la Alemania de Hitler que en nuestro pueblo; y de todos modos los alemanes que estaban prohibidos en su tierra podían escribir en el exilio (como lo hicieron Mann, Freud y muchos otros)*" queda patente la emergencia de una contradicción inevitable entre el Mirande defensor del nazismo, ideología que suprime toda libertad de expresión, y el Mirande escritor, amante precisamente de dicha libertad de expresión y que reconoce de facto que Freud y Mann tuvieron que huir para poder seguir escribiendo.

El Mirande defensor de los pueblos minoritarios y del pueblo vasco en particular tampoco puede ser comprendido sin tener en cuenta la influencia del nacional-socialismo, puesto que en realidad dicha reivindicación la hace dentro de unos límites geográficos y humanos muy estrechos y selectivos: pueblos minoritarios blancos de Europa y de una Europa más bien del norte. Así, cuando Mirande afirma "*Admitamos que los vascos son como los demás pueblos europeos, miembros de la gran familia de las razas blancas: ése es el más seguro indicio de nuestra europeidad fundamental.*", queda claro que, por ejemplo, las comunidades autóctonas de América no caben en esa visión fundamentalmente racista y no humanista.

La autora del artículo analiza también la influencia de Nietzsche en el pensamiento de Mirande, pero deja claro que el pensamiento del filósofo alemán fue desfigurado y utilizado por Hitler, que como bien dice E. Gil Bera "*(le) canonizó (...) -sin haberle leído jamás- a través de un templo ridículo en Weimar.*" Asimismo, la autora del artículo hace recordar, con A. Goldschmidt, la importancia del pensamiento de Nietzsche en las obras de antinazis como T. Mann o H. Hesse.

En segundo lugar el artículo se centra en una de las temáticas recuperadas y desarrolladas por el nacional-socialismo, la de la muerte heroica y de su incidencia particular en dos poemas de Mirande: *Eresi* (Elegía) y *Gudu abestia* (Canción guerrera). Se hace patente la recurrencia de las imágenes viriles del régimen diurno: guerreros, armas, cuerpos erguidos, banderas izadas, etc., así como la presencia en uno de los poemas de la idea del eterno retorno en la cual reconoceremos, una vez más, la influencia de Zarathoustra de Nietzsche.

Cierto es que no se pueden entender ciertos postulados estéticos de Mirande dejando de lado los que desarrolló el nacional-socialismo, que deformó y utilizó para su material de propaganda corrientes estéticas heredadas del romanticismo europeo; pero no es menos cierto que Mirande fue un poeta auténtico, habitado, al igual que Baudelaire y Poe, por la muerte y la nada, un poeta lleno de contradicciones cuya ironía provocativa y cuyo anticonformismo nunca hubieran sido admitidos por quienes tanto defiende y que fueron, en su época de gloria, quienes quemaron más de 20.000 libros "indignos" en 1933 en Berlín y organizaron una exposición del arte "degenerado" (*Entartete Kunst*) de Chagall, Kandinsky, Klee, Kokoschka, etc., en julio de 1937 en Munich.